Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Ijentea, 1 - Tel. 943481019 - 943481000 - Faxa 943481142 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

**UDALBATZARI**

**AL EXCELENTISIMO AYUNTAMIENTO PLENO**

Udalbatzak, 2017ko ekainaren 29ko bilkuran, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuak Udal Bide Publikoetan Aparkatzeko Tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzeko hasierako onespena ematea erabaki zuen.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 29 de junio de 2017, aprobó inicialmente la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por el Estacionamiento de Vehículos de Tracción Mecánica en las Vías Públicas Municipales.

Hasierako onespen horren iragarkia iragarki oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko uztailaren 10ean, eta “Diario Vasco”n uztailaren 11n, eta, hala, jendaurrean jartzeko eta entzuteko aldia hasi zen, 30 lanegunerako.

El 10 de julio de 2017 se insertó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de edictos anuncio de la citada aprobación inicial, y el 11 de julio en el Diario Vasco, abriéndose el plazo de exposición pública por plazo de treinta días hábiles.

Jendaurreko epea bukatuta, ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testua publikatuko da.

Dentro de dicho plazo no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro de la modificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazten zaio, Donostiako Udalbatzaren Organo Araudiko 113. artikuluan xedatutakoa jarraituz, aipatutako udal Ordenantza Fiskala aldatzea erabaki zuen akordioa behin betiko bihurtu dela.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 113 del Reglamento Orgánico de Pleno, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la modificación de dicha Ordenanza Fiscal.

**Donostian, 2017ko irailaren 7an**

**Idazkari Orokorra**

**Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6155n 2003-04